

PORTUGAL: ITXAROPENAREN ATEAK ZABALIK

Mendebaleko kapitalismoa larri-dura latzak jasaiten ari den garaiotan, Gobernari politikoak, gabe-tik goizera amiltegitratzen diren sa-solotan; Heat, Agnew, Brandt eta agian laister Nixon: Herri menpe-ratuek, beren burujabetasuna inoiz bezain ozenki aldarrikatzen duten egunotan; Europako faszismorik ur-tetsuena herioak hartu du.

Harrigarria izan da salazarismo-aren amaiera ezin laisterragoa. 1926garrenetik gaurdaino iraun duen agintaritzaz larderiakoia, ordu gutxiaren baitan, inongo defentsai-lerik gabe birrindurik, buztinezko jauregi bat bailitzan! Birrintzaileek ez dute lanuzte eta gose grebarik egin, ez dira izan, ez ezkertiarak, ez da proletargoaren ordezkariak ere; harmadaren kapitan eta gu-dalburuak baizik. Portugalgo fasziz-moa, bere sostengatzaileen artean sorturiko ondoez eta barnekontra-dizioak suntsitu dute. Caetano be-rak, azken zorian, agintaritzaren tresnak herriari ez baino ordena gorde eta zainduko zuen Spínola gudalburuari emaniko zizkiola agin-du zuen. Saihets honetarik begira-turik, Portugalgo kolpea «palazie-goa» izan da. Hots, goren mailako burjesiak, herriaz baliatzeke, bere kabuz prestatu duen ekintza. He-rriak besoak tolestaturik itxoiz zuen kolpearen tenorean.

Portugalgo burjesia kapitalistari, Salazarrek eraikitako faszizmoa, neu-rrirri-nerria zetorkion, oraintsu ar-te. Bestela esan, Portugalgo giza-klase zuzendaria salazarista zen eta Salazarren bidez mintzo ohi zen. Alabaina, egungo egunean, sa-lazarismoak (ohar Caetano, haren morroi biluz zela) Portugalgo ka-pitalismoa aterabiderik gabeko zu-rrunbilora amildu du. Gaurregun Portugalgo kapitalismoari ez zaio inodikan ere salazarismoan jarrai-tzea komeni; halakorik egitea, bere buruari harrika ematea litzaioke.

—oOo—

Portugal internazionalki ez da ba-tere ongi ikusia izan. ONU-k sarri-tan zigortu izan ditu haren egitadak. Mundu guziak gaitzetsi zituen iazko urtean Wiriya-mu-n hauzoan Mozam-biqueko lurraldeetan, FRELINO-ko (Frente de Liberación de Mozam-bique) gerrileroak harrapatu beha-rez, eta berauen babesle ziren us-tetan burutu zuten mehatxua: la-rehun wiriya-mundar batere kupida-rik gabe hil zituzten. Londresko ka-zetari talde bat izan zen, Hastings apaizaren txostena ikasi ondoren, protestarik gehiena egin zuen tal-dea. ONUk batzorde bat izenda ze-

zala, Wiriya-munen gertatua sala-zezan, eskatu zuen. Baina Caetanok hau erantzun: «un equipo de la ONU sería en contra de la verdad y opuesto a nuestros intereses». Amílcar Cabral Guinean eta beste zenbat izkutuko hilketa? izkutuan baino egunen batetan herriek dei-hadartuko dituzten hilketak!

1970garrenko Uztailean Paulo VI Aitasanduak, Amílcar Cabral, Agos-tinho Neto eta Marcelino dos San-tos-i ikustaldi bat baimendu zien. Hiru gerrilero hauek ofizialki har-tuak izan zirelako, Caetanoren go-bernua hegigoaz haserretu zen, eta geroztik Vatikanorekiko elkarbideak ez ziren onbideratu.

O.C.D.E.ko elkartearen dagoen aber-rririk txiroena Portugal izaki. Buru bakoitzeko errenta 750 dolare ba-karrik. Ekonomiaren barnegitura ahula, industriagintza hastapenetan eta eskulanik eza, batez ere es-kulan gaztea eta profesionalizatua industriagintzan arras beharrezkoa, berekin zamaturik ditu Portugalek. Urtero, Angola, Mozambique eta Guinea Bissau-ra 145.000 portuges gazte heltzen dira, han gudaritza-ren egikizunet lotzen zaizkie. Eta beste 100.000 gazte, gutxi gorabe-hera, isilpean ihesari emanaz Euro-pan barna sakabanaturik. Herri-lan-gilegoaren altzotik gazte andana hau kenduz gero ekonomi egitura indarge gelditzen da.

Afrikako abertsaletasunak eragi-nik, 1961an, tenore honetan Afri-kaldeko zenbait herri, esate bate-tarako Kongo, Europako metropolien aurka sutsu borrokaturik ziharduen, Angolako herria Portugalgo imperia-lismoaren aurka irmoki altxatu zen. 1964an Mozambiquek beste horren-beste egin zuen. Angola Mozambi-que eta Guinea Bissau geroz eta ozenkiago mintzo dira bere buru-jabetasunaren alde. Kontura gaitze-zen hiru aberriok Afrikaldeko burru-karen testoiinguruan kokaturik dau-dela eta Portugal baino erresuma botereitsuagoek Afrikaldeko kolo-niak askatasunean utzi dituztela. Portugalgo imperialismoa klasikoa desegokia eta desgaraikoa da, etor-kizunik gabekoa eta bakar bakarrik bortxaren bidez sostenga daiteke-ena. Eta azkenengo bide bakar hau-xe darabilki, ibili ere! Portugalek, bere ekonomiaren kaltetan, Herri-gostuaren zatiparte izugarri bat xa-hutzen du bere imperioaren defen-tsan.

Ondorengo dato hauek Herri-gos-tuaren diru kopuritik, defentsarako zenbat zatiparte maneiatzen duen frogatzen dute.

URTEAK	1949	1954	1960	1961	1965	1968	1970
DEFENTSA-GOSTUAK	% 23	% 26,8	% 25,2	% 35,6	% 40,2	% 42,4	% 42,70



SPINOLA

Ekonomia-indarren arabera, agian Portugal izango da mundu guztian, defentsan dirutzarik gehiena xahu-tzen duen aberria. Gerrate gorrian bizi diren aberriek, batez ere Ekial-dekoek, bakarrik daduzkate gisa-ho-netako diru kopuruak defentsari es-kainirik. Portugal gerrako-ekonomi-an bizi dela esateaz nor harritu beraz!

Buruhauste gehiegi batera meta-tu zaizkio, bederatzi miloi biztanle dituen aberri pobre bati. Afrikalde-ko herri zanpatuen problemak mui-n muineraino sartu zaizkio eta dia-lektikoki metropoliko problema na-gusi bihurtu. Hau garbi ikusi bide dute politikorik ausarteenak, Spi-nolaren aldarriari, «itsasandikako eskualdeen konponbidea, harmadan ez baino politikan datza», amore egin diote.

SPINOLA BURUZAGI BERRIA

Antonio Spínola, «Portugal e o Futuro» liburu ospetsuaren egilea, bi hilabetetan 250.000 ale saldu da. 64 urtetako militar bat da. Portu-galگو harmadak duen jeneralik oho-retsua eta zentzatuena. Salaza-rismoaren ankerkeriei aski esanik, Portugalentzat estrategia berri bat proposatzen biziki arduratu izan da. Spínola, betidanik eskuindar mo-duan agertzen zaigu. 1941an nazita-rrekin batera Stalingradon ibili zen. Ordenaren eustaille porrokatua izan-ik, Angolara lehenbizi eta Guinea Bissaura geroztik, bidali zuten, han-go gerrilak garai zitzen. Spínola, Portugalgo kapital monopolistari itsatsirik dago. C.U.F. (Companhia Uniao Fabril) ia Guinea Bissau guz-tia kontrolatzen duen elkarteari eta Champalimand, Portugalgo altzairu guztiaren jabea, berezik. Empresa

honetako kontseilari bat Antonio Spínola bera izaki.

Eskuindar buruzagi berri honek, Portugal, Merkatu Batera hurbil-duaz, berriro, demokratizatu eta eu-ropatartu nahi du.

Helburu hauek lortzen zazpi aha-lak egin beharko ditu, erdipuerdiz-ka ibiltzeke. Zeren, Portugal, 48 urtetako faszismo gaitzak txirotasu-netik ez du askatu. Alderantziz Afri-kaldeko herriak menderatu beharrez sortu duen gerla imperialistak, non Argelia Frantziari eta Vietnamia U.S.A.ri antzo, aterabiderik gabeko lezezulo beltzera eraman du. Sala-zarismoak, Portugal, herri eri, biluz eta behartsu utzi du. Europako zer-bitzurik kaskarrenak beekin: 1.000 haur jaioberretarik 55,45 hiltzen di-ra. 1.037 biztanlerentzat midiku ba-karra! Eremu gaitzak eta herrialde osoak, Faro, Beja, Evora, Portale-gre, Viseu eta analfabetismoaren menpean! espetxeak gainezka eta herbeste-bortxatuak milaka! Hauxe izan da funtsean, 48 urtetako go-bernamolde larderiakoia portugaldarrei utzi dien altxorra.

Angola, 1.246.700 km.², 5.431.000 bizilagun, Mozambique, 783.030 m.², 7.360.300 bizilagun Guinea Bissau, 36.125 km.² 530.000 bizilagun, kolonialismorik zaharren eta klasikoen antzera taxaturik daude. Batetik, be-

ren metropoli xurgatzailea lehen-gai edo materiaz hornitzen dute. Bestetik, koloniapeko baldinkizunik arruntenak beteaz, metropolin, Por-tugalen alegia, eraikiriko etekinak ezinbestez erosi beharra. Oraindai-no Portugal ez zaio beste biderik hartzerik iruditu. Herri kolonizatuok sortu dizkieten problema guztiei modu batez erantzun izan ohi dio: Bortxakeriaz.

Spínola jaunak, bere liburuan dio-enez bada beste biderik ere. Bere proposamenduan estatuto berri bat aipatzen du, Estatuto honetan, Spi-nolak itsasoz haruntzako herrien-tzat autodeterminazioa eskatzen du; baina autodeterminazio arras portu-gest. Besteen artean, Mozambiquek ez dugu uste onar lezakeanik be-hintzat. Eta berriro ere gaurko Por-tugalgo gobernuarentzat Afrikalde-ko herri zanpatuen askatzea izan-go da giltzarri.

Zama astuna, Portugalgo gober-nu berriari, salazarismoak utzi dio-na, era askotariko problemak sor-turik daduzka iadanik. Burutan ate-rako ote ditu? Ezin uka oinarritzko zenbait ekintza egin ez dutenik ere, aste honetan «Partido Popular De-mocrático» sortu da, eta gobernu bat, probisionalki eraikitzen ari di-ra. Bidenabar europatarak begi onez ikusi dute portugaldarren al-daketa sakona. Portugalen itxaro-penaren ateak zabalik daude. Ala-fede.

ANATSAN